

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Astelehen honetan jarriko dira martxan endoskopiak egiteko instalazio berriak Nafarroako Ospitaleguneko C Pabiloian

Azterketak egiteko gelak bikoiztu egin dira, 3tik 6ra eta, hari esker, 3.000 arreta baino gehiago eman ahalko dira

Viernes, 22 de enero de 2016

Astelehen honetan, hilak 25, endoskopiak egiteko instalazio berriak martxan jarriko dira, Nafarroako Ospitaleguneko C Pabiloiko behe-solairuan daude (lehengo Nafarroako Ospitalea), eta azterketak egiteko 6 gela gehiago izango dira, zentroko D Pabiloian egun daudenak baino 3 gehiago.

Halaber, azalera erabilgarria handitu egin da: 154 metro koadro zeuden orain arte, eta hemendik aurrera 1.074 izango dira; bertan, inguruneari egokitzeko eta esnatzeko 10 box daude, pazienteentzako 3 itxarote-gela, endoskopia, erizaintza eta anesthesiako langileentzako gelak, kontrolerako gunea, komunak, biltegia, zikin-gela, garbiketara-gela, administrazioko 4 bulego, erlaxatzeko gunea eta abar.

Gela berrietan lan egiteko, plantilla beste bi medikurekin, erizaintzako bost profesionalekin, klinikako lau laguntzailerekin eta zeladore batekin indartu da.

Instalazioak ekipatzeko 1.636.739 euro gastatu da, zati handiena, 1.522.105 euro, ekipamendu elektromedikurako, eta gainerakoa, 114.663 euro, altzari eta ekipamendu orokorrerako. Teilatuko zutabeen instalazioa –anestesiarako 6 sistema eta endoskopiarako beste sei– nabarmendu behar dira, sendagas-harguneak dituztenak, hargune elektrikoak eta datu-harguneak; monitorizatzeko ekipamendua; endoskopiatarako arnagailuak; desfibriladoreak; garbigailu endoskopiokoak; tratamendurako 16 ohatila; edo falka desinfektatzeko sistemak, besteak beste.



Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradunak, instalazioak bisitatzen.

Nafarroako Osasun
Zerbitzuko kudeatzaile Oscar
Morachok eta Nafarroako
Ospitaleguneko kudeatzaile
Antonio Merinok bisitatu dituzte
gela berriak. Haiekin batera

izan dira unitateko zenbait arduradun, Nafarroako
Ospitaleguneko Aparatu Digestiboko Zerbitzuko Jose Manuel
Zozaya buru zela.

Gastroskopia eta kolonoskopiaren igoera

Horri guztiari esker, Nafarroako Ospitaleguneko Digestio
Zerbitzuko endoskopietan laguntza-ahalmen handiagoa izango da, gehien eskatutako tekniketan bereziki:
gastroskopia eta kolonoskopian. Urtean 3.000 azterketa gehiago egingo direla kalkulatu da.

2015ean 7.200 gastroskopia eta uzukiko sigmoidoskopia egin ziren, eta gela berri horiek irekita urtean
7.600 azterketa egin ahalko dira.

Kolonoskopietan, ia 7.500 bat egin ziren, eta haietatik 1.100 kolon eta ondesteko minbizia garaiz
detektatzeko programari dagozkio, nahiz eta 9.000 eskaera izan ziren. Aipatu behar da, aurtengo
urtarriletik aurrera, programa horretan sartutako jende-kopurua areagotu egin dela, eta programa
horretarako kolonoskopia-eskaera 2.600 inguru izango dela urtean uste da; beraz, egunero bi gela
programa horretarako bakarrik erabili beharko dira.

Beste azterketa zehatzagoetan (ekoendoskopia, CPRE, enteroskopia eta abar), lan-bolumen
berarekin jarraituko da; izan ere, teknika horietan unitateak dagoen eskaera guztia bere gain hartzen du:
urtean 600-700 CPRE egiten da; 600 ekoendoskopia baino gehiago eta hainbat motatako 1.000 azterketa
terapeutiko.



Azterketa-gela baten irudia.